# ABIATU 2.0 GAILUAREN KONTRATUA
CONTRATO DEL DISPOSITIVO ABIATU 2.0

## *Datu fiskalak / Datos fiscales*

| | |
|---|---|
| **IZEN-ABIZENAK /** NOMBRE Y APELLIDOS**(*)** | **NAN-AIZ /** DNI-NIE**(*):** |
| **ERROLDA HELBIDEA /** DIRECCIÓN PADRÓN**(*)**: | **PK eta HERRIA /** C.P. y POBLACIÓN**(*)**: |
| **POSTA ELEKTRONIKOA /** CORREO ELECTRÓNICO**(*)**: | **TELEFONO MUGIKORRA /** TELÉFONO MÓVIL**(*)**: |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **JAIOTEGUNA /** FECHA DE NACIMIENTO**(*)** | | **HIZKUNTZA /** IDIOMA**(*)** | **EUS** ☐ **CAS** ☐ |
| | | **GENEROA** / GÉNERO | **E/M** ☐ **G/H** ☐ |

## *Ibilgailua / Vehículo*

| | |
|---|---|
| **MARKA-MODELOA /** MARCA-MODELO**(*)**: | **MATRIKULA /** MATRÍCULA**(*)**: |

## *Jasotzeko / Recogida*(*):

***(markatu X batekin 3 aukeretako bat) /*** *(marque con una X una de las 3 opciones)*

☐ **DOAN ARITZETAko bulegoan astelehenetik ostiralera 8:00-20:00** / GRATIS en la oficina de ARITZETA de lunes a viernes 8:00-20:00
☐ **DOAN zure etxetik hurbileneko POSTA BULEGOAN** / GRATIS en la OFICINA DE CORREOS más cercana a su domicilio
☐ **ZUZENEAN ETXEAN jaso euro 1en TRUKE** / RECIBIR DIRECTAMENTE EN CASA por 1€

**POSTA BULEGOAN edo ETXEAN jasotzeko aukeretan, errolda helbidearen desberdina izanez gero, zehaztu helbidea, PK eta herria.**
En las opciones de recogida en OFICINA DE CORREOS o EN CASA, si es diferente a la dirección de padrón, especificar dirección, CP y municipio:

## *SEPA zordunketa zuzenean helbideratzeko agindua / Orden de domiciliación de adeudo directo SEPA*

**HARTZEKODUNA /** ACREEDOR

**Identifikatzailea** / Identificador: A-20783023

**Izena** / Nombre: BIDEGI, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia- Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SA

Helbideratze-agindu hau barne hartzen duen kontratu hau sinatuz, zordunak honako baimen hauek ematen ditu: (i) Bidegi, SAri, zordunaren banketxeari bere kontua zorduntzeko jarraibideak bidaltzeko, eta (ii) banketxeari, zordunketak bere kontuan egiteko, hartzekodunaren jarraibideen arabera.

Mediante la firma del siguiente contrato, donde se incluye esta orden de domiciliación, el deudor autoriza a (i) Bidegi, S.A. a enviar instrucciones a la entidad del deudor para adeudar su cuenta y (ii) a la entidad para efectuar los adeudos en su cuenta siguiendo las instrucciones del acreedor.

**KARGUAREN HARTZAILEA /** DEUDOR DEL CARGO

**Identifikazio datuak** / Datos de identificación: Kontratu honetan adierazi direnak / Los declarados en este contrato

**Kontu zenbakia IBAN** / Número de cuenta IBAN**(*)**:

E S

**Ordainketa mota** / Tipo de pago: Errepikaria / Recurrente

**ALDAKETA/** CAMBIO

Jakinarazten denetik 15 eguneko epean gauzatuko da / Será efectivo en el plazo de 15 días desde su comunicación.

***(*) Markatutako datuak nahitaezkoak dira / Los datos marcados con (*) son obligatorios***

**BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS, SA-K HORNITUTAKO ABIATU GAILUA KONTRATATZEKO ETA ERABILTZEKO KONTRATU-BALDINTZAK.**

**KLAUSULAK**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratu honen xedea da Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, SAren (aurrerantzean "Bidegi") eta Abiatu gailua kontratatzeko eta erabiltzeko titularraren -pertsona fisikoaren- arteko harreman juridikoak arautzea.
Kontratu honen bidez, Bidegik bezeroari –pertsona fisikoari (aurrerantzean "Titularra")– gordailuan eta erabiltzeko ahalmenarekin laga dio Abiatu gailua (aurrerantzean "Gailua"). Titularrak, bestalde, kontratu honetan ezarritakoa bete beharko du.

**2. GAILUA KONTRATATZEKO ETA ERABILTZEKO ESKAKIZUNAK**

Gailua kontratatzeko eta erabiltzeko eskubidea izango bada, abenduaren 23ko 19/2014 Foru Arauan ezartzen diren aurreikuspenak, edo aplikatzekoak izango diren ondorengo arauetan ezarritako aurreikuspenak bete beharko dira, baita Bidegik ezarritako eskakizunak ere.

**3. GAILUAREN ERABILERA**

Gailuak autobideetako kanona ordaintzeko edo aparkaleku baimenduetako tarifak ordaintzeko aukera emango du, gailua hautemateko tresneria egokia instalatuta duten eta Gailuari lotutako matrikula irakurtzearen bidez ordaintzeko aukera ematen duten gainerako zerbitzuetan ere ordaindu ahal izango da.
Bidegiren web-orrian kontsulta daiteke atxiki zaizkion bitartekoen zerrenda eguneratua: www.bidegi.eus.
Halaber, Gailuaren bidez Titularrak eskubidea izango du momentu bakoitzean indarrean dauden Bidegiko deskontuez baliatzeko.
Titularrak arduraz erabili beharko du Gailua, Kontratu honetan ezarritakoari jarraituta.
Fabrikatzailearen diseinua dela eta gailua "turismoetan" erabiltzeko prestatuta dago. Gailuak behar bezala funtzionatzeko, modu iraunkorrean instalatu beharko da, betiere fabrikatzaileak emandako eta Gailuarekin batera helarazitako jarraibideen arabera.
Gailua motoetan edo motozikletetan erabiltzea Titularraren ardurapean dago. Edonola ere, euste-elementu homologatuak erabili beharko dira, gutxienez 10 metroko tartea utzi beharko da aurreko ibilgailuarekiko, eta bidetik 10 km/h-tik beherako abiaduran pasa beharko da. Kasu hauetan, eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko kobratzailea dagoen bidetik igarotzea gomendatzen da.

**4. IRAUPENA**

Kontratu honek iraupen mugagabea du. Gailua baliozkoa izango da esleitu zaion iraungitze-datara arte. Era berean, Titularrak baimena emango dio Bidegiri Gailua mugaegunean berritzeko. Iraungitze-data iristean, Bidegik aurreko gailua ordeztuko duen beste gailu bat bidaliko dio Titularrari.
Bestalde, Titularrak bere gailuaren baja eskatu ahal izango du noiznahi. Horretarako, baja-eskaeraren berri eman beharko dio Bidegiri, eta gailua itzuli beharko du.

**5. PREZIOA**

Gailuari alta ematea doakoa da. Mantentze-zerbitzuaren prezioa urteko 7 eurokoa da (BEZ barne).
Justifikatu gabeko galerak, hausturak edo lapurretak, gailua ez bueltatzeak edota beste gailu bat lortzeak 36 €-ko kostua izango du, (BEZ barne).

**6. FAKTURAZIOA**

Fakturazio elektronikoko zerbitzuan alta eman ez denean, Titularrak espresuki baimenduko du Bidegik, bere www.bidegi.eus web orriaren bidez, Gailuarekin egindako kontsumoari buruzko fakturak helaraz diezazkion.
Edonola ere, Titularrak baimen hori ezeztatu ahal izango du. Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko du info@bidegi.eus helbide elektronikora edo honako helbide honetara: Bidegi-BAZ: Aritzeta Zerbitzugunea, GI-20 errepidea, 14,800 KP (20170), Usurbil.

**7. TITULARRAREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK**

Titularrak honako hau bete beharko du:
- Kontratuan ezartzen diren xedapenen arabera erabili beharko du Gailua.
- Ematen zaion gailua zaindu eta egoera onean kontserbatu beharko du. Espresuki debekatuta dago Gailua hirugarren batzuei lagatzea edo merkaturatzea. Era berean, espresuki debekatuta dago Gailuan biltzen den informazioa osorik edo zati bat kopiatzea, baita berez eta berariaz duen xedeaz bestelako xede baterako irekitzea, manipulatzea eta/edo erabiltzea.
- Ordainketak helbideratzeko kontuan, egiten zaizkion karguak ordaintzeko behar besteko saldoa eduki beharko du.
- Gailuarekin egindako transakzioak ordaindu beharko ditu.
- Egindako transakzioak errealak eta zuzenak direla egiaztatzeko eta justifikatzeko, Bidegik jaulkitako faktura elektronikoan erregistratutako zenbatekoak onartuko ditu, eta erregistro horiek kargu-justifikatzaile gisa balioko dute.

**CONDICIONES CONTRACTUALES PARA LA CONTRATACIÓN Y UTILIZACIÓN DEL DISPOSITIVO ABIATU SUMINISTRADO POR BIDEGI, GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS S.A.**

**CLÁUSULAS**

**1. OBJETO DEL CONTRATO**

Es objeto del presente contrato es, regular las relaciones jurídicas entre Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A. (en adelante, "Bidegi") y el Titular, persona física, para la contratación y utilización del dispositivo Abiatu.
Mediante el presente contrato, Bidegi, cede al cliente, persona física (en adelante el "Titular"), en depósito el dispositivo Abiatu (en adelante el "Dispositivo"), con facultad de uso, obligándose al Titular a los términos establecidos en el presente contrato.

**2. REQUISITOS PARA LA CONTRATACIÓN Y USO DEL DISPOSITIVO**

Para tener derecho a la contratación y uso del Dispositivo, deberán cumplirse las previsiones establecidas en la Norma Foral 19/2014, de 23 de diciembre, o por aquellas previsiones establecidas en las posteriores normativas que resulten de aplicación, así como aquellos requisitos establecidos por Bidegi.

**3. USO DEL DISPOSITIVO**

El Dispositivo permite el pago del canon en autopistas, el pago de las tarifas en los aparcamientos autorizados y en demás servicios que tengan instalados los equipos adecuados y/o admitan el pago mediante la lectura de matrícula vinculada al Dispositivo.
Puede consultarse el listado actualizado de los servicios adheridos, en la página web de Bidegi: www.bidegi.eus.
Asimismo, el Dispositivo también otorga al Titular el derecho al disfrute de aquellos descuentos de Bidegi vigentes en cada momento.
La utilización del Dispositivo se deberá realizar de manera responsable por el Titular de acuerdo con lo establecido en el presente contrato.
Para el buen funcionamiento del Dispositivo, el cual, por diseño de fabricante está preparado para su uso en "Turismos", se deberá instalar de manera permanente, de acuerdo a las instrucciones indicadas por el fabricante y proporcionadas junto con el Dispositivo.
El empleo del mismo en motos o motocicletas será bajo la responsabilidad del Titular, debiendo en cualquier caso emplearse elementos de sujeción homologados, guardar una distancia de al menos 10 m respecto al vehículo precedente y realizar el paso por vía a una velocidad inferior a 10 km/h. En estos supuestos y por la seguridad de los usuarios, se aconseja el paso por vías de cobro manuales.

**4. DURACIÓN**

El presente contrato tendrá una duración indefinida. El Dispositivo será válido hasta la fecha de caducidad asignada al mismo. Asimismo, el Titular autoriza a Bidegi a renovar el Dispositivo a su vencimiento. Llegada la fecha de caducidad, Bidegi remitirá un nuevo Dispositivo al Titular en sustitución del anterior.
Por su parte, el Titular podrá proceder a la solicitud de baja de su dispositivo en cualquier momento, para lo cual deberá comunicar a Bidegi la solicitud de baja y proceder a la devolución del Dispositivo.

**5. PRECIO**

El alta del Dispositivo será gratuita. El precio del servicio de mantenimiento será de 7 euros/anuales (IVA incluido).
En caso pérdida, rotura o robo sin justificación, la no devolución del dispositivo y/o la obtención de un nuevo dispositivo, tendrá un coste de 36 € (IVA incluido).

**6. FACTURACIÓN**

El Titular presta su consentimiento expreso para que, en caso de no estar dado de alta en el servicio de facturación electrónica, Bidegi ponga a su disposición, a través de su página web www.bidegi.eus, las facturas correspondientes al consumo realizado con su Dispositivo.
En cualquier caso, el Titular podrá revocar este consentimiento, para lo cual deberá dirigir su petición por escrito a info@bidegi.eus o a Bidegi-SAC: Área Servicio Aritzeta, Carretera GI-20, PK. 14,800 (20170) Usurbil.

**7. OBLIGACIONES Y RESPONSABILIDAD DEL TITULAR**

El Titular se obliga a cumplir lo siguiente:
- Utilizar el Dispositivo de acuerdo con las estipulaciones establecidas en este contrato.
- Custodiar el Dispositivo que se le entrega, y conservarlo en buen estado. Queda expresamente prohibida la cesión o comercialización de Dispositivo a terceros. Asimismo se prohíbe expresamente la copia total o parcial de la información contenida en el Dispositivo, así como la apertura, manipulación y/o utilización para una finalidad distinta a la que le es propia y exclusiva.
- Mantener saldo suficiente en la cuenta de domiciliación de pagos para satisfacer los cargos correspondientes.
- Abonar las transacciones realizadas con el Dispositivo.
- Aceptar, a efectos de comprobación y justificación de las transacciones realizadas, como reales y exactos, los importes registrados en la factura

- Bidegiri berehala jakinaraziko dio Gailua galdu zaiola edo lapurtu diotela, behar ez bezala erabili dela edo edozein anomalia edo akats duela.
- Bidegiri jakinarazi beharko dio baimendu gabeko transakzioren bat txertatu dela laburpenean, baita ordainketak helbideratzeko kontua aldatu dela ere. Titularrak bere gain hartuko ditu bere Gailuarekin egin diren transakzioak, bera transakzio horien egile dela onartzen ez duen arren, betiere Gailua lapurtu diotela, behar ez bezala erabili dela edo faltsutu dutela jakinarazten duen unera arte.
- Suposizio horiek jakinarazi ahal izango dira www.bidegi.eus web-orrian edota Bezeroaren Arreta Zerbitzuko bulegoetan.
- Kontratu hau amaitzean edo baliogabetzean, egoera ezin hobean itzuli beharko dio Gailua Bidegiri. Titularrak bere gain hartuko du Gailua galtzeko edo narriatzeko arriskua, eta Bidegiri ordaindu beharko dio Gailuaren erabilera normalaren ondoriozkoa ez den edozein kalte edo galera. Kontratua amaitzean Gailua itzultzeko betebeharra betetzen ez bada, Bidegik gailuaren kostua Titularrari kobratzeko eskubidea izango du, hau da, 36 € (BEZ barne).
Titularrak Bidegiren aurrean erantzungo du Gailuaren erabileraz eta kontratu honen ondoriozko betebeharrez, Gailua instalatuta egon den edo dagoen ibilgailua edozein izanik ere, aurreikusten diren erantzukizunen salbuespenen kasuan izan ezik. Gailua berritzen den kasuan, gailu berria jaso bezain laster itzuli beharko du ordeztutako gailua. Gailua 30 eguneko epean itzultzen ez bada, 36 euroko zigorra ezarriko da urtean, Gailua itzuli arte.
- Titularrak Bidegiri jakinarazi beharko dio Zerbitzua kontratatzean emandako datu pertsonaletan, ibilgailuaren datuetan eta banku-datuetan gertatutako edozein aldaketa, gertatzen den unetik bertatik.

electrónica emitida por Bidegi, sirviendo dichos registros como justificantes de cargo.

- Notificar a Bidegi de forma inmediata de la pérdida, robo, hurto o uso indebido, así como de cualquier anomalía o defecto del Dispositivo.
- Poner en conocimiento de Bidegi, la inclusión en el extracto de alguna transacción no autorizada, así como de la modificación de la cuenta donde se domiciliarán los pagos. El Titular asumirá la responsabilidad derivada de aquellas transacciones cuya autoría no reconozca y que se hayan efectuado con el Dispositivo, hasta el momento de la notificación del robo, hurto, pérdida, uso indebido o falsificación del mismo.
- Los citados supuestos podrán comunicarse en la página web www.bidegi.eus o en las Oficinas del Servicio de Atención al Cliente.
- Devolver a Bidegi, el Dispositivo en perfecto estado a la finalización o resolución del presente contrato. El Titular correrá con el riesgo de pérdida, o deterioro del Dispositivo, debiendo reembolsar a Bidegi, cualquier daño o menoscabo que sufra el Dispositivo y que no se deban a un uso normal del mismo. En caso de no cumplir la obligación de restitución del Dispositivo a la finalización del contrato, Bidegi tendrá derecho a cobrar al Titular el coste de dicho dispositivo, valorado en 36 € (IVA incluido)
El Titular responderá frente a Bidegi del uso del Dispositivo y de todas las obligaciones dimanantes del presente contrato independientemente del vehículo en que haya estado o esté instalado el Dispositivo, salvo en los casos de exención de responsabilidades previstas. En caso de renovación deberá devolver el dispositivo sustituido tan pronto reciba el nuevo dispositivo. La no entrega del dispositivo en un plazo de 30 días conllevará una penalización de 36€ anuales hasta la devolución del Dispositivo.
- El Titular deberá comunicar a Bidegi cualquier modificación de los datos personales, datos del vehículo y datos bancarios facilitados al contratar el Servicio, desde el momento en que se produzca.

### 8. TITULARRAREN BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Azaldutako betebeharrak betetzen ez badira, eta bidezkoak izan daitezkeen administrazio-zigorren kalterik gabe, Bidegik Gailua desgaitzeari ekingo dio, erabiltzaileari deskontu-planean baja emango dio eta, horrela, iruzurrezko erabilera egin den aldi horretan sortu dituen eta oraindik aplikatu ez diren deskontu eta kenkari gehigarri guztiak ezeztatuko dizkio. Era berean, Gailua itzultzea eta jada egin zaizkion deskontuak eta kenkariak itzultzea eskatuko dio.

### 8. INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES DEL TITULAR

En caso de incumplimiento de las obligaciones expuestas, sin perjuicio de las eventuales sanciones administrativas que pudieran proceder, Bidegi procederá a inhabilitar el Dispositivo, dar de baja al usuario del plan de descuentos, anulando todos los descuentos y deducciones adicionales a los que tuviere derecho y que hubiere devengado durante el periodo de uso fraudulento. Igualmente se requerirá la devolución del Dispositivo y de aquellos descuentos y deducciones ya practicados.

### 9. BIDEGIREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Bestetik, Bidegik betebehar hauek beteko ditu:
- Iraungitako Gailuak ezeztatuko ditu, baita lapurtu, galdu edo kopiatu direlako salatu diren gailuak ere.
- Gailuaren kargura egin diren transakzioen barne-erregistroa egingo du.
Era berean, Bidegik ez du erantzukizunik izango:
- Autobideetan eta Bidegirenak ez diren aparkalekuetan Gailuak urrutitik hautemateko tresneriaren funtzionamendu akastunaz edo ohiz kanpokoaz.
- Titularrak Gailua gaizki erabiltzeaz edo berezkoa zaion xedeaz bestelako xede baterako erabiltzeaz.
- Gailuaren erabilera desegokiaren emaitzazko zeharkako kalteez, lortu gabeko irabaziez edo irabaziak galtzeaz.

### 9. OBLIGACIONES Y RESPONSABILIDADES DE BIDEGI

Por su parte, Bidegi se obliga a:
- Anular los Dispositivos caducados, así como los denunciados por haber sido sustraídos, extraviados o copiados.
- Mantener un registro interno de las transacciones llevadas a cabo con cargo al Dispositivo.
Asimismo, Bidegi no se responsabiliza:
- Del defectuoso funcionamiento o anormal funcionamiento de los sistemas de cobro en las autopistas y aparcamientos de titularidad ajena a Bidegi.
- De la mala utilización por parte del Titular del Dispositivo o de su utilización para una finalidad distinta y exclusiva de aquella que le es propia.
- De los daños indirectos, lucro cesante o pérdida de beneficio que se deriven de una utilización indebida del Dispositivo.

### 10. BALDINTZAK ALDATZEA

Bidegik kontratu honetan aurreikusten diren baldintza hauek aldatu ahal izango ditu. Aplikatu baino bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dizkio Titularrari baldintza berriak.
Jakinarazpen horretatik salbuetsita daude deskontu-planari lotutako aldaketak eta aplikatzeko irizpideak.

### 10. MODIFICACIÓN DE CONDICIONES

Bidegi podrá modificar las presentes condiciones previstas en este contrato, mediante su comunicación al Titular dos meses antes de su aplicación.
Quedan excluidas de esta comunicación las modificaciones relativas al plan de descuentos así como a los criterios para su aplicación.

### 11. BALDINTZA OROKORRAK

Bidegik espresuki ohartarazten du kontratu honetako klausulak aurrez idatzi dituela berak. Hortaz, kontratatzaileek nahitaez aplikatu beharko dituztela ezartzen duen xedapen orokor edo berariazko batek araututa ez dauden klausulak, edo berariazko negoziazio baten mende izan ez diren klausulak, kontratazioaren baldintza orokortzat joko dira. Bidegirekin kontratatzen dutenek jasoaraziko dute berariaz onartzen dituztela baldintza horiek, baita kontratuan txertatzea onartu, betiere kontratazioaren baldintza orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legeari jarraituta

### 11. CONDICIONES GENERALES

Se advierte expresamente por Bidegi, que las cláusulas de este contrato han sido redactadas previamente por el mismo, por lo que aquellas que no vengan reguladas por una Disposición de carácter general o específico que las haga de aplicación obligatoria para los contratantes o que no hayan sido objeto de una negociación específica, se consideran condiciones generales de la contratación, dejando constancia los contratantes con Bidegi, su aceptación expresa de las mismas y de su incorporación al contrato, de conformidad con la Ley 7/1998, de 13 de abril, sobre Condiciones Generales de la Contratación

### 12. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Eduki informatiboa: Zure datu pertsonalak Bidegik tratatzen ditu, tratamenduaren arduraduna den heinean, Abiatu gailuaren kontratazioa kudeatzeko, gailuarekin lotutako zerbitzua emateko eta Bidegiren azpiegituretan zein bestelako azpiegitura publiko edo pribatuetan (adibidez aparkalekuetan) gailua erabiltzearen ondorioz pertsonak sortutako informazioa kudeatzeko. Gainera, gailuaren erabilpenetik ondorioztatu ahal den informazio pertsonala kudeatzeko, erabilpen profilak egiteko eta gailuarekin lotutako zerbitzuen kudeaketaren edo aldaketen inguruko komunikazioak bidatzeko tratatzen dira. Era berean, administrazio elektronikoaren zerbitzuak emateko beharrezkoak diren datuak eta Bidegik dituenak, tratamendu hau kudeatzeko erabiliko dira. Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna: Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentziak-

### 12. PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

Contenido informativo: Sus datos personales son tratados por Bidegi en calidad de responsable de tratamiento para la gestión de la contratación del dispositivo “Abiatu”, desarrollo del servicio vinculado a este dispositivo y gestión de la información personal generada por la persona usuaria del dispositivo en infraestructuras viarias pertenecientes a Bidegi o en otras infraestructuras públicas o privadas ajenas a Bidegi, tales como parkings u otras, así como para gestionar la información personal obtenida a partir del uso del dispositivo y elaborar perfiles de uso del dispositivo y envío de comunicaciones relativas a la gestión, modificación o cambios relativos a los servicios vinculados a este dispositivo. Asimismo, los datos que sean requeridos para la prestación de servicios de la administración electrónica de que dispone Bidegi serán utilizados

Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, SA (IFK: A2078302; helbidea: Asti Auzoa, 631A- 20800 - (Zarautz) – Gipuzkoa). Eskatutako datu pertsonalak eta zerbitzuaren ondorioz sortzen direnak, "Abiatu" gailuaren kontratazioa eta momentu bakoitzean indarrean dauden deskontuak ezartzea ahalbideratzen duen zerbitzu hau kudeatzeko tratatzen ditu. Datuak erabiltzeko legitimazioa: Datuen tratamendua egiteko legitimazioa edo lege-oinarria eskatzaileak sinatutako kontratua, interes publikoa (abenduaren 26ko 17/1990 Foru Arauan eta Bidegiren eraketari buruzko Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretuan gauzatua), Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.b) eta 6.1.e) artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, eta kontratu horretan Abiatu gailuaren erabilera-profilak egiteko eskatzen den baimena (Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.a) artikuluan xedatutakoari jarraikiz) dira. Administrazio elektronikoko zerbitzuei buruzko datuak tratatzeko lege-oinarria abenduaren 26ko 17/1990 Foru Araua eta Bidegiren eraketari buruzko Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretua dira (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari dagokionez), Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Gailuarekin lotutako informazioa bidaltzeko oinarri juridikoa Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 7.artikuluan eta Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatzen da. Datuen komunikazioa: Zerbitzua eman ahal izateko, datuak dagokion udal-erroldari jakinaraziko zaizkio IZFEren (Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea- Sociedad Foral de Servicios Informáticos S.A) plataformen bitartez, eskaera egiten denean eta ondorengo egiaztapenetan Gipuzkoan erroldatua egotearen betekizuna egiaztatu ahal izateko eta, horren ondorioz, kanona eta gailuarekin lotutako deskontuak kudeatu ahal izateko. Horrez gain, eskaera egiten denean eta ondorengo egiaztapenetan, Gipuzkoako Foru Ogasunarekin tributu betebeharrak egunean daudela ziurtatuko du Bidegik. Hori dela eta, eskaera egiten denean eta ondorengo egiaztapenetan betekizun hauek egiaztatu ahal izateko, erabiltzaileak baimen honen bitartez onartzen du Bidegik udal-erroldako datuak egiaztatzea, baita Gipuzkoako Foru Ogasuneko datuak egiaztatzea ere, Gipuzkoako bide-azpiegituretako kanona eta deskontuak kudeatzeko. Gainera, BIDEGIk datuak jakinarazi ahal izango dizkie beren lurraldeetan eduki handiko autobideak kudeatzen dituzten INTERBIAK SA, ARABAKO BIDEAK-VIAS DE ALAVA SA eta ASF (Autoroutes du sud de la France) entitate publikoei eta Abiatu gailuaren bidez ordainketa bat egiten zaien enpresei, hala nola aparkalekuei, erreklamazioei erantzun ahal izateko. Halaber, datu pertsonalak jakinaraziko dira arau batek eskatzen duenean eta zerbitzuari kanpoko hornitzaileen bidez euskarria eman behar zaionean. Datu pertsonalen kudeaketak ez du datuen nazioarteko transferentziak egitea suposatzen. Datuen kontserbazioa: Datu pertsonalak zerbitzua eman bitartean gordeko dira. Ondoren, blokeatu egingo dira, baimendutako langileentzako sarbide mugatuarekin. Egoera honetan egongo dira zerbitzua ematearen ondoriozko ekintzen edo zerga-legeria aplikagarriak eskatutakoen preskripzio edo iraungitzearen aldietan. Helburu estatistikoekin edo erabiltzaileentzako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ikerketak egiteko beharrezkoak diren datuak, informazio pertsonala anonimo bihurtuz egingo dira.

Datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako eskubideak: pertsonak eskubidea dauka BIDEGI bere datu pertsonalak tratatzen ari den edo ez erakutsiko duen informazioa jasotzeko. Modu horretan, interesdunek haien datuak irispidean izateko, datu zehaztugabeak zuzentzeko edo ezerezteko eskubidea izango dute, besteak beste datuak beharrezkoak ez direnean jaso ziren helburuako. Egoera zehatzetan, interesdunek tratamendua mugatzea eskatu ahal izango dute, kasu horretan, erreklamazioak egin edo defendatzeko soilik kontserbatuko ditugu. Era berean, egoera partikularrarekin lotutako arrazoien ondorioz, interesdunek haien datuen tratamenduaren aurka egin dezakete. Kasu horretan, Bidegik datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta legezko eta premiazko arrazoiak daudenean edo erreklamazio posibleak egin edo defendatzea beharrezkoa denean. Honez gain, interesdunek datuak transferitzea eskatu ahal diote Bidegiri emandako datuak formatu egituratuan lortzeko, erabilpen komun eta irakurketa mekanikoarekin, euren kabuz deskargatzeko edo Bidegik beste entitate bati transmititzeko. Gainera, pertsonak bere adostasuna kentzeko eskubidea dauka, baina honek ez dio aldez aurretik emandako adostasunean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunari kalterik egingo. Interesdunak bere eskubideak dbo@bidegi.eus helbidera e-mail bat bidaliz egikaritu ahalko ditu. Bidegiren webguneko pribatutasun atarian inprimaki bat eskuragarri dago. Datuak Babesteko Bulego eskudunaren aurrean erreklamazio bat aurkez daiteke, bereziki eskubideak asetzea lortu ez bada.

Segurtasuna: Datuak modu konfidentzialean tratatuko dira, egokiak diren segurtasun-neurri tekniko eta antolatzaileen menpe, aldatzea, galtzea eta baimenik gabeko tratamendua edo sarbidea saihesteko. Datuak Babesteko Ordezkariari buruzko informazioa: Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorra betez, BIDEGIK Datuak Babesteko Ordezkari bat du. Pertsona hau, erakundeak informazio pertsonalaren kudeaketan pertsonak errespetuz tratatzen dituela eta datuak babesteko araudia errespetatzen dela ziurtatzeko arduraduna izango da. Ordezkari honekin kontaktatzeko modua dbo@bidegi.eus helbidearen bitartez izango da. Baimena: Kontratu hau on line onartuz edo dokumentua sinatuz, sinatzaileak bere datu pertsonalak adierazi diren helburuetarako erabiltzea baimentzen du espresuki.

para gestionar este tratamiento. Responsable del tratamiento de datos personales: BIDEGI Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Gipuzcoana de Infraestructuras S.A., con CIF A20783023 y domicilio en Asti Auzoa, 631A 20800 - (Zarautz) – Gipuzkoa, trata los datos personales solicitados, y los que se desarrollen como consecuencia del servicio, para gestionar la contratación del dispositivo "Abiatu" y gestión de este servicio que permite aplicar los descuentos vigentes en cada momento. Legitimación para el uso de los datos: La legitimación o base legal para el tratamiento de sus datos es el contrato formalizado por la persona solicitante del dispositivo y el interés público materializado en la Norma Foral 17/1990, de 26 de diciembre, y Decreto Foral del Consejo de Diputados 43/2002, de 16 de julio, sobre constitución de BIDEGI, y ello conforme a lo establecido en los artículos 6.1.b) y 6.1.e) del Reglamento Europeo de Protección de Datos, así como el consentimiento que se solicita en dicho contrato para la realización de perfiles de utilización del dispositivo Abiatu, conforme a lo dispuesto en el artículo 6.1.a) del Reglamento Europeo de Protección de Datos. La base legal para el tratamiento de los datos relativo a los servicios de administración electrónica es el cumplimiento de una obligación legal materializado en la Norma Foral 17/1990, de 26 de diciembre, y Decreto Foral del Consejo de Diputados 43/2002, de 16 de julio, sobre constitución de BIDEGI en relación con la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, conforme a lo establecido en el artículo 6.1.c) del Reglamento Europeo de Protección de Datos. La base jurídica para el envío de Información relativa al dispositivo, se efectúa conforme a lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno y artículo 6.1.c) del Reglamento General Europeo de Protección de Datos. Comunicación de datos: Para el desarrollo del servicio los datos serán comunicados al padrón municipal correspondiente mediante plataformas de IZFE (Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea - Sociedad Foral de Servicios Informáticos S.A) al objeto de comprobar, en el momento de la solicitud y en comprobaciones posteriores, el requisito de empadronamiento en Gipuzkoa para la gestión del canon y sus descuentos vinculados al dispositivo. Asimismo, en el momento de la solicitud y en comprobaciones posteriores Bidegi comprobará los datos de estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa. Por ello, al objeto de verificar en el momento de la solicitud y en comprobaciones posteriores el cumplimiento de estos requisitos, la persona usuaria mediante la presente autorización consiente a Bidegi la comprobación de los datos del padrón municipal de su ayuntamiento y los relativos a la Hacienda Foral de Gipuzkoa para la gestión del canon de infraestructuras viarias de Gipuzkoa y sus descuentos. Asimismo, BIDEGI podrá comunicar los datos a las entidades públicas INTERBIAK S.A., ARABAKO BIDEAK-VIAS DE ALAVA S.A. y ASF (Autoroutes du sud de la France) que gestionan autopistas de alta capacidad en sus respectivos territorios, así como a las empresas en las que se produzca un pago a través del dispositivo Abiatu, tales como parkings y estacionamientos, con la finalidad de atender reclamaciones. También efectuará comunicaciones de datos personales en aquellos supuestos en que una norma lo exija así como para dar soporte al servicio a través de proveedores externos. La gestión de los datos personales no supone la realización de transferencias internacionales de dichos datos. Conservación de los datos: Los datos personales se conservarán durante la prestación del servicio, tras lo cual pasarán a bloqueo con acceso restringido de personal autorizado, permaneciendo en esta situación durante los períodos de prescripción o extinción de las acciones que pudieran derivarse por motivo de la prestación del servicio o las exigidas por la legislación tributaria aplicable. Los datos necesarios para la realización de estudios con fines estadísticos y aquellos otros que redunden en la calidad del servicio para las personas usuarias se realizarán anonimizando la información personal obtenida. Derechos vinculados al tratamiento de sus datos personales: La persona tiene derecho a obtener confirmación sobre si Bidegi está tratando datos personales que les conciernan, o no. Así, las personas interesadas tienen derecho a acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar su supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para los fines que fueron recogidos. En determinadas circunstancias, las personas interesadas podrán solicitar la limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso únicamente los conservaremos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones, así como, y por motivos relacionados con su situación particular, las personas interesadas podrán oponerse al tratamiento de sus datos. Bidegi dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Asimismo, las personas interesadas podrán solicitar la portabilidad de los datos para obtener los datos que han proporcionado a Bidegi en un formato estructurado, de uso común y de lectura mecánica, para ser descargados por sí mismos o transmitidos de Bidegi a otra entidad. Asimismo, la persona tiene derecho a retirar su consentimiento, retirada que no afectará a la licitud del tratamiento basada en el consentimiento previo a aquélla. La persona interesada puede ejercitar estos derechos dirigiendo un correo electrónico a la dirección dbo@bidegi.eus. Dispone de un formulario en el portal de privacidad del sitio web de BIDEGI. Puede presentar una reclamación ante la Agencia de Protección de Datos, especialmente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos. Seguridad. Los datos serán tratados de forma confidencial y bajo el sometimiento a medidas técnicas y organizativas de seguridad adecuada para evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado. Información sobre el Delegado de Protección de Datos. En cumplimiento del Reglamento General Europeo de Protección de Datos Bidegi dispone de un Delegado de Protección de Datos como persona encargada de

velar por el respeto a las personas en la gestión de su información personal en la organización y por el cumplimiento de la normativa de protección de datos pudiendo contactar con esta figura a través del canal dbo@bidegi.eus. Autorización. Con la aceptación on-line del contrato o con la firma en el documento, la persona firmante autoriza expresamente el uso de sus datos personales para las finalidades que han sido indicadas.

**13. KONTRATUA BALIOGABETZEA**

Kontratua Baldintza Orokor hauetan aurreikusitako kausen ondorioz iraungiko da, betebeharrak iraungitzeko kausa orokorrak kontuan izanik. Horren arabera, Bidegik kontratua baliogabe dezake Titularrak bere betebeharrak betetzen ez dituenean, bereziki ordaintzen ez denean, Titularrak kontratua hirugarren bati lagatzen dionean edo Titularrak emandako datuak faltsuak, okerrak edo akastunak direnean. Hala gertatuz gero, gailua blokeatzeari ekingo dio, eta kontratua berehala baliogabetzat emango du. Horrek ez du inolako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortuko.
Titularrak, bestalde, edozein unetan baliogabe dezake kontratua.
Kontratua bertan behera uzteak ez du geratzen diren zorrak ordaintzeko betebeharraz salbuesten.
Bidegik edozein unetan aldatu ahal izango ditu kontratua eta haren baldintzak, baina aurretik Titularrari edozein bitartekoren bidez jakinarazi beharko dio, bi hilabeteko aurreabisuarekin, eta hura eraginpean badago. Titularra aldaketarekin bat ez badator, Bidegiri jakinaraz diezaioke kontratua baliogabetzeko borondatea duela. Komunikazioa jaso eta 2 hilabeteko epea du hori egiteko, epe hori amaitutakoan aldaketak onartzen dituela ulertuko da. Kontratua baliogabetzea erabakitzen badu, guztia ordaindu arte mantenduko dira zordun den betebeharrak

**13. RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**

El contrato se extinguirá por las causas previstas en las presentes Condiciones Generales, de acuerdo con las causas generales de extinción de las obligaciones. De conformidad con ello, Bidegi podrá resolver el contrato en caso de que el Titular incumpla sus obligaciones, en especial la de pago, cesión del contrato por parte del Titular o bien cuando los datos facilitados por el Titular fuesen falsos, inexactos o erróneos, en cuyo caso procederá a bloquear el Dispositivo, dando por resuelto el contrato de forma inmediata y sin que ello genere derecho a percibir indemnización alguna.
El Titular por su parte tendrá derecho a resolver en cualquier momento el contrato.
La extinción del contrato no exonera de la obligación del pago de las deudas pendientes.
El contrato y sus Condiciones podrán ser modificados por Bidegi en cualquier momento, previa comunicación al Titular por cualquier medio, con antelación de dos meses si resulta afectado. Si el Titular no estuviera conforme con la modificación, podrá notificar a Bidegi su voluntad de resolver el contrato en el plazo de 2 meses desde que reciba la comunicación, en caso contrario, se entenderá que el Titular acepta las modificaciones. En el supuesto de que decida resolver el contrato subsistirán, en su caso, hasta su completo pago, las obligaciones de que fuese deudor.

**14. JAKINARAZPENAK**

Kontratu honetan aurreikusten denaren arabera, eta kontratua gauzatzeko, egin behar diren komunikazioak idatziz egingo dira, komunikazioaren xedea telefono bidez edo Bidegiren web-orriaren bidez posible denean izan ezik. Ondorio horretarako, helbide hauek hartuko dira aintzat: Bidegirentzat, beherago adierazitako helbidea; eta, Titularrarentzat, helbide elektronikoa.

**14. NOTIFICACIONES**

Las comunicaciones que hayan de realizarse con motivo de lo previsto en el presente contrato y en ejecución del mismo se efectuarán por escrito salvo que su objeto sea posible telefónicamente o mediante la página web de Bidegi. A estos efectos se tendrán por designados, para Bidegi el domicilio indicado más abajo, y para el Titular, el correo electrónico.

**15. APLIKATU BEHAR DEN LEGERIA**

Kontratu hau Espainiako legeriaren eta jurisdikzioaren arabera eraenduko da.
Esku hartzen duten aldeek, orrialde honetan egindako sinadura bakarrarekin, adostasuna eta onarpena ematen diote kontratu honen osotasunari, bertan ezartzen diren hitzetan, baldintzetan eta erantzukizunetan

**15. LEGISLACIÓN APLICABLE**

El presente contrato se regirá por la legislación y jurisdicción españolas.
Las partes intervinientes con una única firma estampada en la presente página, prestan su conformidad y aprobación a la totalidad del presente contrato, en los términos, condiciones y responsabilidades que se establecen en el mismo

Data / Fecha:

BIDEGI
Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia
Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras
Asti auzoa, 631 - A 20800 Zarautz

Alfredo Etxeberria Murua
BIDEGI, SA
Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia
Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras

Titularra / Titular

**BIDEGIko Bezeroaren Arreta Zerbitzua**
**Servicio de Atención al Cliente de BIDEGI**
Aritzeta Zerbitzugunea
GI-20 errepidea, 14,800 KP
20170 - Usurbil (Gipuzkoa)
info@bidegi.eus
943 105 106